

Mondragon Unibertsitateak batxilergoko ikasleri gerturatuko die zientzia eta teknologia

2012/11/19

Jardunaldia datorren ikasturtean Goi Eskola Politeknikoak Arrasateko kanpusean abian jarriko den ingeniari-tza biomediko berriaren aurkezpenarekin hasiko da egunero. Aurkezpena 10:00etan egingo da 7. eraikinean. Ondoren, 10:30etik 13:00era, ikasleek, lau taldetan banatuta, honako hauek bisitatuko dituzte: 7006 gelan ingeniari-tza medikoko erakusketa; 3. eraikinean (3107 gelan) fluidikako eta inplanteen laborategia; 2. eraikinean (2304 gelan) osasunari eta kirolari buruzko lantegia; eta 2. eraikinean (2208 gelan) ekoingeniari-tzako lantegiak. Azken lantegi horren helburua energiari eta ekoteknologiari buruzko bi ingeniari-tzak era ludikoan aurkeztea da. Mondragon Unibertsitateak, hain zuzen, datorren ikasturtean Donostialdeako kanpus berrian abaian jarriko ditu. Modulu horretan, gazteek honako gauza hauek ikusi ahal izango dituzte: eguzki-jarraitzaile bat –orduaren eta koordenatuen arabera orientatzen den panel fotovoltaikoa–, bero sortzaile bat eta baita energia berriztagarriei konektaturiko etxebizitza baten maketa ere.

